# 2016




## Zumaiako leku-izenak

Izenez inguratuta bizi gara, eta askotan konturatu gabe erabiltzen ditugu, tartean leku-izen asko. Horietako batzuk belaunaldiz belaunaldi iritsi dira guregana, eta askotan garai jakin bat ezagutzeko arrastoak ematen dizkigute.

Gurean jasota dago izen pila bat, hor dauzkagu liburua, mapa eta bestelako materialak ere, baina egindako lanek zentzua galtzen dute izenak egoki erabiltzen ez badira.

Horregatik, egutegi honek izen horietako batzuk geureganatzen eta iraunarazten lagundu nahi du, eta gaia etxekoekin lantzen badugu, konturatuko gara izenek balio dutela Zumaia hobeto ezagutzeko eta maitatzeko.




Irudiak: Ander Hormazuri

Hay topónimos o nombres de sitios que son muy antiguos y nos dan pistas acerca de cómo era Zumaia en otros tiempos. Con este calendario os queremos invitar a investigar sobre algunos nombres y conocer así mejor nuestro pueblo.

euskara txanpan



# URTARRILA

Txikierdi

euskara txanpan

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



# OTSAILA

Amaiako plaza

euskara txanpan

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | ◑ 2 | 3 |  Santa Ageda bezpera | 5 | 6 | 7 |
|  ● Inauteriak | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| ◐ 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| ○ 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | | | | | | |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora



# MARTXOA

Zubiaundia

euskara txanpAn

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | ◑ 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | ● 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | ◐ 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | ○ 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora



# APIRILA

Puntanoeta

euskara txanpa

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
|   | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



# MAIATZA

Moilaberria

euskara txanpAn

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | ● 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | ◐ 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | ○ 21 | 22 |
| 23 / 30 | 24 / 31 | 25 | 26 | 27 | 28 San Pankrazio Estazioan | ◑ 29 |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora




# EKAINA

Amezmendi

euskara txanpAn

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 San Pedro eguna | 30 | 31 | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



# UZTAILA

Intxaurtxoeta

euskara txanpAn

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| ● 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 San Kristobal Narrondon |
| 11 | ◐ 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | ○ 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | ◑ 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora



# ABUZTUA

Marianton

euskara txanpa

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | ● 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | ◐ 10 | 11 | 12 Euskal jaia | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | ○ 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 San Bartolome Oikian | ◑ 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

● ilberria ○ ilbetea ◐ ilbehera ◑ ilgora




# IRAILA

Estalapea

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ● 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 Arritokieta eguna | ◐ 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | ○ 16 | 17 Olarro eguna | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | ◑ 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 San Migel eguna | 30 | | |

● ilberria ○ ilbetea ◐ ilbehera ◑ ilgora



# URRIA

Palankamugarri

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | ● 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | ◐ 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | ○ 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | ◑ 22 | 23 |
| 24<br>31 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | ● 30 |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



# AZAROA

Mantzisidor

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



# ABENDUA

Arroakalea

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 Euskararen Eguna | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 Olentzero eta Gomezago | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



## MARIANTON

Talaimendi aldetik itsas aldera mutur bat irteten da, Marianton izenekoa, eta antzinako paperetan 1561eko istripu baten berri horrela ematen dute: "a 14 de Mayo del dicho año fue por lapas y murió Mariantón de Fosango, viuda, a la cual alcanzó una baga de mar en que la llevó y fue ahogada". Polita litzateke hori izatea izenaren jatorria. Eskalada-eskola bat bada horma ilun horretan, eta Yosemite izena jarri zioten hasieran, Ameriketako Estatu Batuetako izen bereko parkeko pareten antza zuelako. Jatorrizko izena ez ezagutzearen ondorioak.



## FORONDA ETA AMEZMENDI

Moilaberriko zubiaren paretik ikusita, ibaian belaontziak eta bestelakoak ageri dira, ontzigintzan eta itsas garraioan garrantzi handia izan zuelako Zumaiak. Foronda jauregiaren gainean, erdi ezkutuan, Amezmendi etxea ikus daiteke, izen bereko gainean. Lehen mojena izan zen, eta Txomin Agirre apaiz eta idazleak ederki famatzen zituen Amezmendiko oiloak: "¡Qué buen caldo hacen!". Ametsetako ikuspegia dago handik, baina ametzak zeuzkalako hartu zuen izen hori, haritzaren familiako zuhaitzak, *Quercus pyrenaica* espeziekoak.



## LUBAKIAK ETA BASADIAK

Orain etxeak eta lantegiak dauden tokian garai batean erriberak eta basadiak besterik ez zegoen; Basadiberri izena zuen inguruak, hortik dator auzunearen Basadi izena. Uholdeekin erraz estaltzen ziren lur horiek, 1951ko argazkia, horren adibide; horregatik eraikitzen ziren errio ertzean lubakiak. Hara kiroldegiak ere izena nondik hartu zuen.



## IZENA BADU, BADA

Izenen atzean izana dago, beti dago arrazoiren bat izen hori edukitzeko eta ez beste bat. Leku-izen batzuk herri edo inguru txiki batean besterik ez dira ezagutzen, eta galtzeko arriskuan egoten dira. Horregatik, azken 10 urteotan Zumaian lan asko egin da toponimiarekin lotuta.

- Mapa toponimikoa: www.zumaia.eus/eu/udala/sailak/euskara/argitalpenak
- *Zumaia, izena eta izana* liburua, Imanol Azkuerena (Turismo Bulegoan salgai).
- Ikastetxeetan saio bereziak DBH mailan.
- Era askotako panelak eta planoak: baserri-bideak, merkataritzakoak...

Zer den toponimia? Izan daiteke nonbaiteko leku-izenen multzoa (adibidez, Zumaiako toponimia), edo izan daiteke izen horiek aztertzen dituen zientzia edo jakintza.

Konturatu gabe, toponimoak etengabe azaltzen zaizkigu gure egunerokoan: kaleen errotuluetan, ZIIZen paneletan, etxeko helbideak paperetan idazten ditugunean, ingurukoekin hizketan ari garela (nondik gatozen edo nora goazen esateko), baleike.eus webgunean edo *Hitzan* irakurtzen ditugunean... Izenen historia eta istorioak ezagututa, toponimo berriak gehitu, eguneratu eta erabil ditzagun ahalik eta ondoen, bizi-bizi iraun dezaten.



## AMAYA HOTELA

Inoiz Zumaian egin den hotelik handiena izan zen, eta 1922an hasi ziren eraikitzen, lehenago padura eta hondarra besterik ez zen tokian. Hala ere, ez zuten inauguratu 1943 arte eta tartean ospitale militar ere izan zen. Era askotako ekipamenduak zituen: lurrazpiko garajea, teniseko pista, igerilekua, zinema... Ospe handia izan zuen eta kanpotar asko erakarri zituen. 1977an bota zuten, baina hor geratu da aurreko plazari emandako izena.

euskara txanpa